

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Udazkena eta Asiako liztortzarraren habiak Nafarroako Foru Komunitatean

*Ingurumeneko Departamentuak garai honetan sortzen den kezka saihestu nahi du, udazkenean ikusten baitira gehien*

Astelehena, 2017.eko azaroak 27

Nafarroako Gobernuak udazkeneko herritarren artean sortzen den kezka saihestu nahi du, orduan ikusten baitira gehien Asiako liztortzarraren habiak, zuhaitzen hostoak erortzen direnean.

Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioaren Departamentuaren Ekonomia Zirkularraren eta Uraren Zerbitzuko teknikarien arabera, "habia horiek egotea ez da larrialdiko egoera edo premia esku hartzeko egoera", eta, "orain gehiago ikusten diren arren, ez du esan nahi gehiago direnik edo arriskutsuagoak direnik".

Asiako liztortzarra (*Vespa velutina*), espezie exotiko inbaditzaile gisa katalogatua, 2010ean sartu zen Foru Komunitatean, eta, hiru urteren buruan, foru-lurraldea hartu zuen. Zailagoa da Foru Komunitatearen hegoaldeko erdian eta Pirinio guneetan eta Pirinio aurreko guneetan ikustea, hotzak mugatu egiten baitu haren garapena.

Aurten, presentzia txikiagoa izan du, bai baldintza klimatikoengatik, bai Nafarroako Gobernuko basozainen, udalen, suhiltzaileen eta norbanakoen lan koordinatuari esker.

Asiako liztortzarraren habiek zenbait hilabete irauten dute, baina gutxiago ikusten dira udaberrian eta udan.

Udazkenean, hostoak erortzean, errazago ikusten dira, batez ere ibai eta baratze inguruetan; oraindik ere ikus daitezke liztortzar aktiboak beren bizikloaren amaieran, zeinak urtebete irauten baitu eta orain



Asiako liztortzarra.



bukatzen baita.

Asiako liztortzarraren habia.

Neurriak hartu behar badira ere, gogorazi behar da liztortzarra ez dela oso erasokorra, eta ia ez duela eztenkatzen modu naturalean. Gainera, haren eztenkadak ez du arazo berezirik ematen gainerako liztorrenarekin alderatuta, non eta eztenkada jaso duenak intolerantziaren bat edo alergia jakin bat ez duen.

Nolanahi ere, neurri gisa, ez da komeni habia batera 5 metro baino gutxiago hurbiltzea.

Komeni da, halaber, habiak ikusiz gero horren berri ematea, espezie exotiko inbaditzaile hori kontrolatzen laguntzeko.

Habia hiri-ingurune batean badago, dagokion udalari jakinarazi behar zaio telefono-ordutegi arruntean, eta, hiri-inguruneetatik kanpo egonez gero, Nafarroako Gobernuari jakinarazi behar zaio, informazio-telefono honetan: 848 42 66 98. Ikuskatu ondoren, udalak edo basozaintzak zehaztuko dute, kasu bakoitzean, zer prozedurari jarraitu behar zaion. Habia V gorri batekin markatuta badago, esan nahi du jada erregistratu dutela agintariek; beraz, ez dago jakinarazi beharrik.

Espezie exotiko inbaditzaileak arazo berria dira, eta, hori konpontzeko, garrantzitsua da herritar guztien lankidetzaren erabat desager daitezen.